

TXIMELETA - BELARRIAK

Testua: LUISA AGUILAR

Irudiak: ANDRÉ NEVES

Itzulpena: FERNANDO REY

Azal gogorrean egina. 22 x 22 cm. 32 orr. 13 €.

- IV. SARI NAZIONALEKO FINALISTA. CITTÀ DI BELLA (Italia) 2008
- GOMENDAGARRIA - Irakur Gida 2009 (Mondragon Unibertsitatea)
- HEZKUNTZA MINISTERIOAREN HAUTAKETA (Argentina) 2015
- IRAKURKETAREN PLAN NAZIONALA (PNL Portugal)
- "LEGGERE SENZA STEREOTIPI" PROGRAMMA (Italia) 2015

Tximeleta-belarriak (euskara)

ISBN 978-84-7681-582-3. Autore liburuak. Lehen irakurleak.

Orejas de mariposa (gaztelania)

ISBN 978-84-96388-72-7. Obras de autor. Primeros lectores.

Orellas de bolboreta (galegoa)

ISBN 978-84-8464-662-4. Demademora.

Orelles de papallona (katalanez)

ISBN 978-84-93666-72-9. Obres d'autor. Primers lectors.

Orelhas de borboleta (portugesa)

ISBN 978-972-8781-83-5. Obras de autor. Primeiros leitores.

Orecchie di farfalla (italiera)

ISBN 978-88-95933-01-6. Gli albi d'autore.

Butterfly ears (ingeleza)

ISBN 978-84-8464-709-6. Books for dreaming.

«Maddi, belarri-handi!

-Ama, zuk uste duzu belarri handi eta zabalak ditudala?


-Ez, alaba. Zuk tximeleta-belarriak dituzu.

-Bai, baina, nolakoak dira tximeleta-belarriak?

-Belarri bereziak dira, buruan tximeletak bezala hegaka ibili, eta gauza itsusiak mila kolorez margotzen dituztenak».

Belarri handiak edo ile zail eta bihurria izatea, altua edo txikia izatea edo potzoloa edo argala... Ezaugarri ñimiñoena ere burla eta hista iturri izan daiteke umeen artean. Horregatik honelako liburu bat behar da, denei erakusten diena, iseka jasaten dutenei zein isekaegileei, jokabide hori gaitzesteko modukoa dela. Besteen burlak jasan beharrean egoten direnei, bereziki, mezu hau ematen die ipuinak: beste batzuentzat iseka eta irain egiteko arrazoi den horri beste begi batzuekin begiratu behar diogula. Gure berezitasunak ez baitira akats, parerik ez duten pertsona berezi egiten gaituzten ezaugarri baizik.

Desberdintasuna airtutz eta ontzat hartuz, indartsuagoak egiten garelako; geure burua garen bezalakoak onartuz, geure nortasuna sendotzen dugulako. Lehenbiziko pausoa da hori nork bere buruaz irri egiten ikasteko... Luisa Aguilarrek gai horrekiko sentiberatasun handia erakusten du testu erraz baina indar literarioz bete honetan. Ipuinak forma, kolore, emozio eta sentimendu mundu batera darama irakurlea. Maddik, amaren esana gogoan -bizitzan ama du erreferentzia nagusi-, banan-banan erantzuten die beste haurren esamesa eta trufei: besteentzat akatsa den hori abantaila eta zortea da Maddirentzat.



■ **Gala:** desberdintasunak, burla-iturri bihurtu beharrean, agerian jarri, norberaren izatearen erakusgarri.

■ **Adin egokia:** 6 urtetik gora.

■ **Alderdi azpimarragarriak:** guraso eta semealaben arteko arteko harremanak eta haurren artekoak; errespetua, autoestimua, nola egin aurre egokiro ezaugarri edo egoera zaili, eskolako jazarpena.

Luisa Aguilar

(Asturias, 1974)

Kamante Teatro-ren sortzaile eta antzezlea izan da 1991tik 2010era. Asturiasko konpainia hartan hasi uzten bere antzele-prestakuntza, eta, ondotik, Espainian, Italian, Brasilen eta Mexikon osatu du zenbait ikastaro eta stajetan. 2010az geroztik Mexikon bizi da, eta han bere proiektu artistikoa garatu du, idazkerari eta antzerkiari ez ezik zinemari, telebistari eta modari ere lotua. Antzerkirako egin dituen testuak eta Kamantek ekoizitako ikuskizunek publikoaren estimazioa dute, baita Espainiako, Italiako, Mexikoko, Argentinako eta Brasilgo jaialdietako kritikariena ere. Eurpako Nuove Mani izeneko saria jaso du (Italia, 1999), gazte sortzaileena, baita Aktorea hoberenaren saria ere Umeentzako Antzerkiaren Europako Ferian (2007), "Que viene el lobo!" izeneko lanagatik.

<https://www.facebook.com/luisaaguilarpeques>

André Neves

(Recife, Brasil, 1973)

Komunikazio Sozialean eta Harreman Publikoetan graduatua Pernambucoko Unibertsitatean. 1995. urtean Arte Ikasketak egiten hasi, eta marrazki eta margolanen zenbait erakusketatan hartu zuen parte. Sarmedeko udako eskolan aritu zen ikasten, Italian. Besteak beste, Haur eta Gazteentzako Liburuatarako Fundazio Nazionalaren saria eta Brasilgo Idazleen Elkartearena jaso ditu. 2002an "Stepan Zavrel" Haurrentzako Irudien XX. Erakustazokan hartu zuen parte. Gaur egun idazle, irudigile eta diseinatzaile grafikoa da Porto Alegren (Brasil).

<https://www.facebook.com/AndreNevesIlustrador>

